

Topalekua

76 zk. 2012ko azaroa

noviembre 2012 - n.º 76

1. orr.: *Gizarte-kontseiluak 2011ko kontabilitate-egoerak onetsi ditu*

2. orr.: *EGAB-K memoria sozioekonomikoa 2011 argitaratu du. Bilakaera ekonomikoa txarra izan arren, I+G+b-ko inbertsioa handiagoa izan dela egiaztatu du*

3. orr.: *Euskadi, tituludunen laneratzeko-tasaren buruan*

4. orr.: *Etengabeko hezkuntza-praktika egokiak, unibertsitatei zuzenduak*
UPV/EHU-ko Ingeniaritza Teknikoek egoitza berria estreinatu dute

GIZARTE-KONTSEILUAK 2011KO KONTABILITATE-EGOERAK ONETSI DITU

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluak, Bilbon, urriaren 10ean egin zuen osoko bilkuran onetsi zituen UPV/EHUko 2011ko aurrekontuen kontabilitate-egoerak. Ekitaldia 12,8 milioi euroko superabita zegoela itxi zen. Unibertsitate publikoak ekonomiari eta finantzari buruzko informazio hori unibertsitate-gobernuari aurkeztu zion gizarteari kontuak emateko prozesuan.

Osoko bilkura berean, Gizarte Kontseiluak ikasketa osagarrien zazpi ikastaroren matrikula-prezioak ere finkatu zituen: “CAD/CAE. Ikastaro aurreratua: Ingeniaritza, Kalkulu eta Elementu Finituen bidezko Zenbakizko Simulazioa (13. edizioa)”; “CAD/CAM. Ordenagailuz lagundutako Diseinurako eta Fabrikaziorako Ikastaro Aurreratua”; “Ordenagailuz lagundutako Diseinu Ingeniaritza eta Simulazioa”; “Diseinu Aeronautikoa”; “*Export Engineering*”; “*Emulsion Polymerization Processes* (2. edizioa)” eta “Jarrera berriz hezteak: ebaluazioa, diagnostikoa eta tratamendua. Osoko Ikuspegia eta Ebidentzia Zientifikoa”.

Era berean, Kontseiluak, 10 kreditu baino kreditu gutxiagoko ikastaroentzat ezarritakoa betetzeko, honako ikasketa osagarri hauen prezioak baliozkotzea erabaki zuen (ikasketa osagarri hauek UPV/EHUko Doktorego Azpibatzerdeak onartuta daude): “Iturriak kapsulatu gabe ditzuten Erradioterapia Eremuetako eta Laborategietako Instalazio Erradioaktiboak Ikuskarierentzat Prestakuntza” (2. edizioa); “Produktua Garatzeko Kudeaketa Sistemen Aurkezpena”; “Produktua Garatzeko Kudeaketa Sistemen Administrazioa”; “Interpretazioa I (6. edizioa)”; “*Performance*-a eta mugimendua (6. edizioa)”; “Interpretazioa II (6. edizioa)” eta “Distantzia Linealetik Espazio Modelizaziorako Morfometria (2D-3D)”.

Gainera, prezioei buruzko atal berean, osoko bilkurak “Giza Zientziak (Esperientzia Gelak)” graduaurreko titularen matrikula-tasak onartu zituen (prezioak ez dira ia aldatu).

Azkenik, Gizarte Kontseiluak aurrekontuen aldatzea batzuket onartu zituen, bai eta irakasleen eta ikertzaileen ordainsari osagarriei buruzko ebazpenak betearazteko akordio batzuket ere.

EGAB-k MEMORIA SOZIOEKONOMIKOA 2011 ARGITARATU DU. BILAKAERA EKONOMIKOA TXARRA IZAN ARREN, I+G+b-ko INBERTSIOA HANDIAGOA IZAN DELA EGIAZTATU DU

EAEko Memoria Sozioekonomikoa, 2011ko ekitaldiari buruzkoa, argitaratu du Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetako Batzordeak. 2011ko azken hiruhilekoan Euskadin izandako ekonomiaren bilakaera txarra, 2012an larriagotu dena, aztertu dute txostenean. Hala ere, Estatuak baino hobetoxe egin du aurrera EAEk. Dena den, krisia gorabehera, ikerketan eta garapenean egindako inbertsioa aztertutako aldiari igo egin zela egiaztatzen dute txosten berean.


- **I+G+b.** I+G+b adierazle nagusiek diote EAE gainerako autonomia erkidegoen aurrealdean dagoela, Europako helburuetatik oraindik urrun badago ere. Hala eta guztiz, 2010ean, I+G jardueren arloko gastuak % 6,2 egin zuen gora Euskadin, aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Izan ere, 2009an BPGdren % 1,99 izatetik % 2,08 izatera pasatu zen. Horrekin batera, I+G zereginetan okupatutako langile-kopuruak ere gora egin zuen, I+G arloko ikertzaile-kopuruarekin batera.
- **Hezkuntza.** 2009-2010. ikasturtean, EAEn gero eta ikasle gutxiagok uzten zituen ikasketak bertan behe-
ra, bukatu baino lehen. Eta inguruko tasaren aldean ere, txikiagoa zen ikasle horien kopurua (2010ean % 12,6; Estatuan: % 28,4; EB15en: % 15,4). Hezkuntza-aurrekontuak, aurreko urtearekin alderatuta,

II.II.6.6. Koadroa. Jarduera- eta langabezia-tasen bilakaera sexu eta adin talde bakoitzeko.
Urteko batez bestekoak

	Jarduera-tasa			Langabezia-tasa		
	2009	2010	2011	2009	2010	2011
>16 biztanleria	55,6	55,9	56,2	8,1	9,2	10,8
16-24	32,0	31,9	30,3	23,0	25,0	24,1
25-34	87,5	87,0	87,1	11,0	11,9	13,8
35-44	87,7	87,5	88,2	7,0	7,6	10,6
45-54	79,8	80,9	82,8	5,6	7,2	8,6
55-64	43,7	47,1	48,6	3,2	4,9	5,5
+64	0,8	1,2	1,0	0,0	0,0	0,0
Gizonak - Guztira	64,0	64,0	63,2	8,4	9,6	11,3
16-24	34,8	32,9	30,0	26,8	28,8	26,0
25-34	90,3	89,9	88,2	12,2	14,0	14,9
35-44	94,9	94,7	93,6	6,5	7,5	10,6
45-54	90,7	90,8	92,1	5,3	6,5	9,2
55-64	57,0	60,2	60,1	3,5	5,5	6,0
+64	1,0	1,6	1,3	0,0	0,0	0,0
Emak. - Guztira	47,6	48,3	49,5	7,8	8,6	10,3
16-24	29,1	30,7	30,5	18,2	20,6	22,0
25-34	84,5	84,0	85,8	9,5	9,5	12,6
35-44	80,2	80,0	82,4	7,5	7,7	10,7
45-54	69,3	71,2	73,7	5,9	8,1	7,8
55-64	30,9	34,5	37,6	2,7	3,9	4,8
+64	0,7	0,9	0,8	1,4	0,0	0,0

Iturria: EUSTAT, PRA.

1.2.7 Grafikoa. I+G ahaleginaren eta enpleguaren bilakaera EAEn



Iturria: EUSTAT.

% 6,5eko beherakada izan bazuen ere, aurrekontua EAEko BPGdren % 3,93 izan zen. Hala ere, unibertsitateko hezkuntza eta unibertsitatekoa ez den hezkuntza bereizten badira, nabarmentzekoa da unibertsitateko hezkuntzan egindako gastua % 0,7 izan zela, Estatuak emandako ehunekoa (% 0,97) baino txikiagoa.

- **Goi Mailako Zientzia eta Teknologian graduatutako pertsonen tasa.** EGAB-k azpimarratu du 2008-2009 urte bitartean ikasketa horietan graduatutako gizonen kopurua 34,2 zela, eta 14,1 emakumeen kasuan. Batzordeak gogoratu du EBk oso garrantzitsu deritzola Matematika, Zientzia eta Teknologian graduatutako pertsonen tasa igotzeari, eta helburutzat hartu duela zientzia- eta teknologia-ikasketetan gizonen eta emakumeen titulazioak orekatzea.
- **Enplegua.** 2011n, langabeziak gora egin zuen EAEn. Izan ere, urteko azken hiruhilekoan biztanle aktiboek % 11,2 langabezian zegoen. Egoera gizonentzat baino apur bat okerragoa zen emakumeentzat. Adineki erreparatuta, 16 eta 24 urtetik bitartekoei gehien eragiten zien, haietako % 24,1k ez baitzuen lanik.
- **Gizarte Babesa.** Diru-sarrerak bermatzeko EAEko sistemak 418 milioi euro esleitu zuen 2011n: aurreko ekitaldian baino % 7,2 diru gutxiago. Bestalde, 2009an –datuak jaso ziren azken urtean–, Gizarte Zerbitzuen gastua 2.123 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtekoa baino % 14,1 handiagoa. Gastua EAEko BPGdren % 3,29 izan zen, eta biztanleko batez besteko gastua 978,4 eurokoa.

EGABren txostenak gako diren beste alderdi sozioekonomiko batzuk ere ikuskatu ditu, hala nola, EAEko bizi-baldintzak, demografia eta immigrazioa, ingurumen naturala, sektore publikoa, osasuna eta osasun-sistema eta hirigintza eta etxebizitza.

EUSKADI, TITULUDUNEN LANERATZE-TASAREN BURUAN


2012ko CYD Txostenak dionaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan gainerako autonomia-erkidegoetan baino goi-mailako tituludun gehiago laneratzen dira. Hala ere, txosten berean jasota dago langabeziaren tasak gora egin duela, Estatu osoan bezala: tituludunen % 12,4 langabezian dago, eta ehuneko horrek soberan gainditzen du Europar Batasunaren batez bestekoa, hots, % 5,2.

• **Okupazio-tasa:** Autonomia-erkidegoen arteko konparazioaren ildotik, Ezagutza eta Garapena Fundazioaren txostenak aipatzen du Aragoi, EAEn eta Katalunian dituztela goi-mailako tituludun herritarren tasa handienak. Eta, aipatutako erkidegoak baino hamar puntu beherago, hau da, kontrako egoeran daude la honako hauek: Kanariar Uharteak, Extremadura eta Andaluzia.

• **Langabezia:** goi-mailako tituludun langabetuen tasa handienak Kanarietakoak (% 19,5), Extremadurakoak (% 18,5) eta Andaluziakoak (% 18) izan dira. Eremu horiek 16 urtetik gorako biztanle langabetuen tasarik altuena ere badute. EAEn eta Nafarroan, alderantziz, 2011ko laugarren hiruhilekoan, goi-tituludun langabetuen tasa % 10etik beherakoa zen; eta haiek ziren horrelako tasa zuten erkidego bakarrak.

• **Tituludunen enpleguaren bilakaera:** 2007. urtetik 2011. urtearen amaiera arte, autonomia erkidego guztietan gainerako biztanleenak baino askoz hobeak ziren goi-mailako tituludun okupatuena eta langabetuen tasak. Euskadin, langabeziak % 7,34 egin zuen gora biztanle aktiboaren artean; goi-mailako ikasketak zituzten biztanleen artean, ordea, % 2,49.

11. Grafikoa. 16 eta 16 urtetik gorako biztanle okupatuena eta langabetuen tasa (%) 2011n, autonomia erkidego bakoitzeko. Hirugarren mailako ikasketak dituztenen eta biztanle guztien arteko konparazioa.



● Okupazioaren tasa guztira ● 3. mailako ikasketak dituzten okupatuena ● Langabetuen tasa guztira ● 3. mailako ikasketak dituzten langabetuen tasa
Oharra: Datuak 2007ko eta 2011ko laugarren hiruhilekoak dira. Langabezia-tasa eskuineko ardatzean irudikatu da

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (INE)

13. Grafikoa. Gastu arruntak ikasle bakoitzeko (euroan). 2008-2009 ikasturtea



Iturria: CRUE eta CYD-k berak egindakoak

(4. orrietan jarraitzen du)

Unibertsitate-sistemaren azterketa ekonomikoa

Unibertsitate-sistemaren azterketa ekonomikoan, estatistika-desfase bat dela eta, ez dago zehatz-mehatz islatuta ekonomia-krisia goi-mailako finantzaketan izaten ari den eragina. Hauxe nabarmentzen du txostenak:

- Herri-administrazioek unibertsitatei egin zizkieten matrikulatutako ikasle bakoitzeko **transferentzia arrunta** handienak honako unibertsitate hauetan jaso ziren: Valentziako Unibertsitate Politeknikoan (7.940 €), Nafarroako Unibertsitate Publikoan (7.736 €), Lleidakoa (7.358 €) eta UPV/EHU (7.331 €). Transferentzia txikiak Juan Carlos Errege Unibertsitatean (4.035 €), Pablo de Olavide Unibertsitatean (4.110 €) eta Extremadurakoan (4.161 €) jaso ziren. Gehien jaso zuen unibertsitateko transferentzia arrunta publikoak ikasle bakoitzeko izan ziren banaketa-zerrendaren amaieran zegoen erakundeak aurkeztu zuen balorearen bikoitza, gutxi gorabehera.

- **Prezioak ikasle bakoitzeko:** 2008an, Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleen finantza-ahalegina 763 eurokoa izan zen, honako unibertsitate hauetako ikasleena baino askoz txikiagoa: Alcalako Unibertsitatean 1.105 €; Juan Carlos Errege Unibertsitatean 1.096 €; eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan 1.020 €. Bestalde, honako hauetan baino gehiago ordaindu zuten: Burgoako (588 €), Las Palmaskoan (626 €) eta Pablo de Olavide Unibertsitatean (628 €).
- **Gastu arruntak ikasleko:** ikasle bakoitzeko gastu arruntei buruzko azterketan, UPV/EHU laugarren postuan dago, gastua 9.314 eurokoa izan zelako. Zenbateko hori gaintitu dute soilik honako hauek: Kataluniako Unibertsitate Politeknikoak (9.672 €); Pompeu Fabrak (9.632 €); eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoak (9.322 €). Hori horrela, azken unibertsitate horiek honako unibertsitate hauetako gastua ia bikoiztu zuten: Extremadurakoa (4.934 €), Juan Carlos Errege Unibertsitatekoa (4.979 €) eta Jaengoa (5.052 €).

ETENGABEKO HEZKUNTZA-PRAKTIKA EGOKIAK, UNIBERTSITATEEI ZUZENDUAK

Unibertsitate Publikoetako Gizarte Kontseiluen Konferentziak «*El caso de la formación permanente. Guía de recomendaciones*» editatu du. Liburuak praktika egokiak biltzen ditu, goi-mailako hezkuntza-erakundeek orientatibide gisa balia ditzaten lan-merkatuak eskatzen dituen ezagutzen, trebetasunen eta gaitasunen araberrako irakas-kuntza, bizitza osorakoa, emateko erronkari aurre egiteko.

Gidaliburuak etengabeko prestakuntza ezartzeko eta kudeatzeko hainbat ereduri helden dio, bost kudeaketa-kasuren eta azken hogeitun Espainiako bost unibertsitatek abiarazi dituzten hamabost praktika egokiren bitartez.

Gaur egun, Espainian dauden 72 unibertsitate publikoren eta pribaturen erdiek etengabeko prestakuntza-zerbitzuak eskaintzen dituzte. Hortaz, zerbitzu horiek oraindik ezarri gabe dituzten unibertsitatei balizko bidaia-orriak esku-

ratzen dizkie gidaliburuak. Unibertsitateen *Hirugarren Misioa* (ezagutzak eta teknologia eta gizarte-erantzukizuna transferitzea) bultzatzeko erabakiak hartzen lagunduko diete bidaia-orriek.

Gidaliburuan bi atal bereizten dira: lehenengoan hainbat kasu, produktu-mota eta antolaketa- eta kudeaketa-eredu batzuk aztertzen dira; bigarrean praktika egokiak 15 adibide azalduta daude, honako alde hauek aintzat hartuta: eskaeraren informazioa kudeatzea, hobekuntza-ekin-tzak, nazioarteko azoketan parte hartzea, ikasle ohien-tzako zerbitzuak antolatzea eta ikasleei zuzendutako prestakuntza- eta praktika-programak. Praktika guztiak eredu eta beste erakunde batzuek antzeko ekimenak abiarazteko baliagarriak izan daitezten, haietako bakoitza zenbait mailatan aztertzen da (plangintza, egikaritzapena eta azken ebaluazioa).

UPV/EHU-KO INGENIARITZA TEKNIKOEN EGOITZA BERRIA ESTREINATU DUTE

UPV/EHUko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolak (IITUE) eta Meatzen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolak (MHLITUE) Pitxitxi kalean duten egoitza berria (Bilboko antzinako Erakusketa azoka) estreinatu zuten irailaren 24an. Egoitza berriak La Casilla-ko instalazioak ordezkatuko ditu, eta UPV/EHUren azpiegiturak modernizatu eta kalitatezko hezkuntza eta ikerketa bermatuko ditu.

Eraikin berria 2005-2010 aldirako UPV/EHUko Campusen Garapen Planaren esparruan egin da, eta César Azkarate-k diseinatu du. 43.418 metro koadroko azalera dauka honela banatuta: beheko solairua, bederatzi solairu gehiago eta bi soto. Metro horietatik 28.084 metro koadro IITUE-ri dago-kio eta 13.563 metro koadro MHLITUE-ri. Instalazio berriek guztira honako hauek hartzen dituzte barnean: 56 gela, 27 mintegi, 7 ikasgela, 238 irakasle-bulego, 9 bilera-gela, 45 ikasteko laborategi, 26 ikerketa-laborategi. Horrez gain,

badaude zuzendaritza-bulegoak, administrazio-bulegoak eta zerbitzu-bulegoak (bai eta hauek ere: ekitaldi-aretoak, bilera-aretoak, graduako gelak, ikasle-elkarteentzako lokalak, teknikoentzako bulegoak, etab.).

